

BATERAGUNE EPAIARI BURUZKO MOZIOA

	ONARTIKO UDALA	
	Erregistro Data	
	2011 IRA 26	
SATUTUA	IRTEKRA	
2059		

“Bateragune” deritzon epaiaren aurrean, Bilduko udal taldeak Udal honetako Osoko Bilkurak bere egin dezan honoko mozioa aurkezten du:

Epaiketa politikoa izan da honakoa, xede politiko nagusi bati erantzuten diona: herri honetan zabaldu den garai politiko berria oztopatzea eta garai politiko berri hau zabaltzen ahalegin berezia egin duten hainbat ordezkari **politiko zigortzea**. Hori izan da eta ez besterik epaiketa honen oinarria.

Sententzia honek sumindura sortzen du Euskal Herrian eta Estatu espainiarrarekiko arrakala are gehiago zabaltzen du.

Epaiketa honen eta Entzutegi Nazionalean zain dauden beste hainbat epaiketen helduleku juridiko bakarra Alderdien Legea izan da, urteotan herri honen ordezkartza politiko eta sozial garrantzitsu baten parte hartze legalari bidea ixteko garatu izan dena, milaka herritarren eskubideak zapuztuz eta hamarnaka ordezkari politiko atxilotu eta espetxeratuz. Estrategia honek ezezko borobila jasotzen du egun herri honen gehiengo erabatekoaren aldetik.

Estatu espainiarraren sakoneko defizit demokratikoa eta botere banaketarik eza erakutsi du epaiketa honek eta eman den sententziak; izaera antidemokratikoa ideia politikoen defentsa eta antolatzeeko eskubidea ukatzen dizkiolako euskal gizartearen zati garrantzitsu bati; eta botere banaketarik

eza, PP eta PSOEren ideia politikoaren eta estrategien luzapena baino ez delako epaiketa hau.

Udal honek interpelazioa luzatzen die eragileei guztiei, eta gizarteari oro har, garai berria oztopatu eta honen aldeko konpromiso argia erakutsi duten ordezkari politikoak zigortu dituen epaiaren aurrean konpromiso aktiboak har ditzaten.


Udal honek, era berean, Estatu espainiarrari dei egiten dio errepresioaren ildoak behin betikoz alde batera utz dezan eta herri honek egin beharreko eztabaida demokratikoari oztoporik jar ez diezaion.

Hau, honela, jarraian aipatzen diren erabakiak hartzen ditu udal honetatik:

1-Udalak gatazkaren irtenbidea sustatzeko, dagokion jarduera instituzionalean urratsak emateko konpromisoa hartzen du.

2-Epaiketa politikoak behin betikoz alde batera utz daitezen eskatzen dugu, zabaldu den garai berriari jarri nahi zaizkion oztopoekin amaituz.

3-“Bateragune” auzian zigortuak izan diren kide guztien berehalako askatasuna eta absoluzioa exijitzen dugu. Halaber, etorkizunean burutzekoak diren beste epai politikoak bertan behera utzi eta epaituak izango direnen askatasuna aldarrikatzen dugu.

A handwritten signature in black ink, consisting of a series of loops and a long horizontal stroke extending to the right.